

# **SANTA AGEDA BEZPERAKO TRAPUKOPLAK 2018**

I.- ZORION ETXE HONTAKO DENOI  
OLES EGITERA GATOZ  
TRAPUJALEREN ISTORIAO  
HERRIAN ZABALDU ASMOZ.

V.-MUNTTAR TA BESTE SEI ZIRIKUEK  
EGIN ARREN LAPURRETA  
TRAPUJALERI ERRUA BOTAZ  
ZABALDU ZEN SALAKETA

II.- DUELA KRISTON DENBORA PILA  
JATEN GENITUN TRAPUAK  
HORREGATIK OMEN GARA ORAIN  
TRAPUJALE LEZOKUAK.

VI.- EPAILEAREN MAILUKADEKIN  
ASTEARTEKO EPAIA  
AGUAZILAREN KATE ARTEAN  
GERO HERIO-BIDAIA

III.- MARTIXKONETIK OSTEGUNZURIN  
JAISTEN DENEZ TRAPUJALE  
BARRIKOTE TA DANTZA GIROAN  
GUZTIOK PARRANDAZALE

VII.- BURUA MOZTU ETA ZAKUA  
HEGAN SUTARA BADOA  
TRAPUJALETIK IRTETEN DIRA  
TXORIZOA TA ARDOA

IV.- MARINAZKANEK ETA ARTZAINEK  
ZAZPI ARDIEN TRATUA  
EKAITZIK GABEKO URTE BATEZ  
HAUTSI ZUTEN KONTRATUA

VIII.- TRAPUJALEREN IZPIRITUA  
ENTZUTEN DA BAT-BATEAN  
NEGARRIK EZ NI ETORRIKO NAIZ  
BERRIZ DATORREN URTEAN.

## **BUKAERA**

Santa Ageda bezpera degu  
Euskalerriko eguna  
etxe guztiak kantuz pozteko  
aukeratua deguna.  
Santa maitea gaur hartu degu  
gure bideko laguna  
haren laguntzaz bete gentzake  
egun hontako jardunak. ¡EUP!

## **Oharra: Sta. Águeda.**

Otsailaren 4an, igandea, arratsaldeko 18:00etan, Musika Eskolatik  
kalejira irtengo da eta 45 minutuko iraupena izango du.

(Musika Eskola, Ijurko, Atzekoate, Kale Nagusia, Donibane Kalea eta Plaza).

Euriarekin, Gurutze Santuaren Plazan egingo da.

**Baserritarrez edo arropa ilunarekin (Txapela, zapia eta makila).**

**ANIMA ZAITEZTE!!!!!!**